

KAIXO!—Edonorri, edonon eta edonoiz «Kaixo!»-rekin agurtzen hasi zaigu gure giputz jendea. Egunon, arratsaldeon, gabon, agur, ongi-etorri..., edo antzerakoen ordezkoa betetze usteen.

Guk ezagutu genuen «Kaixo!», ez zen hori. Gure ustez «*qué hay*»-tik edo zetorren hitz horrek erdarazko «*¡hola!*»-ren balio soila zuen, eta adiskide artean edo konfiantza handiko ezagunen artean baizik ez zen erabiltzen. Edukazorik gabea eta errespetu faltakoa zen edonor, edonon, edonoiz «Kaixo!»-rekin agurtzea. Horrelakorik gertatzen zenean ordea, hitzetik hortzerako erantzuna prest edukitzen genuen:

—Kaixo!

—Ez dogu asko balixo.

Baina, orain, Euskal Telebistaraino ere iritsi zaigu agurtzeko era hori. Beraz, zer da devaluatu dena, euskara ala telebista? Ala, ez ote dugu balixo.

ASMOZ TA JAKITEZ.—K. Bengoetxea jauna, zuk egin diguzun galde bera lehenago ere egina ziguten, baina ez zure deituradunagandik. Egia da Eusko Ikaskuntzak bere iragarritzat hartua: «Asmoz ta Jakitez» zuon deiturako epigrafearen esalditik hartua dela. Otoi, Bizkaiko Aulestia jatorrizko Bengoetxea deituratik, zeren Bengoetxeak jatorri bat baino gehiago bai dute, baina iragarki hori daroana Aulestiko Bengoetxearena da.

Behin baino gehiagotan agertua izango da noski, baina guk inprimaturik ezagutzen dugunetatik zaharrena Juan Karlos Gerrak 1904. urteko irailaren 27an Donostiako Euskal Jaietan irakurri zuen hitzaldikoa da. Hitzaldi horrek argitalpen bat baino gehiago izan ditu. Nik orain eskura aukeran dau-

kadan *Estudios de Heráldica Vasca* deritzanean dator, bigarren argitalpena Donostiako J. Baroja e Hijos-en inprimategian 1910ean agertu zen, bi partetan dator liburu hori eta bigarrenaren «Epigrafía heráldica» deritzan sailean irakur daitake, 319. orrialdean. Armariaren iragarki osoa honako hau da:

*Bekoak goikoak eskondu leidi*

*Ta txikiak aundia benzi leidi*

*Asmuz ta jakitez.*

Badakit hasieran «Bekoa» behar duela, ez «Bekoak»; baina nik dagoen bezala transkribatzen dizut. Ez bai dut uste alderantziz daitakenik, bekoak goikoa ezkondu, baizik goikoak bekoa edo bekoa goikoak. Dena dela, hor duzu liburuan datorren bezala.

J. K. Gerra bera Eusko Ikaskuntzaren sortzaileetakoa zenez, behar bada bere asmoaz hartu zen iragarki hori elkar-tearentzat.

Atsegin zait oharrok eskaintzea. Honenbestez agurtzen zaitut.

*J. S. M.*